



Zuzendu-Modificación


Oharra: Argitalpen hau informazioa emateko baino ez da, zerga betebeharrak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 81. artikuluan ezarritakoaren arabera betetzen laguntzeko.

Informazio hau gorabehera, fakturak egitean, TicketBAI fitxategiak sortu, sinatu eta bidaltzean, eta zerga aitortpenak aurkeztean, unean-unean indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko da.

ZUZENDU - ALDATU

- Aplikazio honen bidez, gerta daitezkeen errore batzuk zuzentzeaz gain, TicketBAI fitxategietako datu jakin batzuk alda daitezke, betiere aldaketek fakturari eragiten ez badiote
- Fakturari eragiten dioten datuak aldatu behar izanez gero, faktura zuzentzailea egin behar da.
- Zuzendu-Aldatu bat bidaltzeko, fitxategian ezin da egon ez errorerik, ez abisurik.

<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai>



The screenshot shows the TicketBAI website interface. At the top, there is a navigation bar with links: "Zer da TicketBAI?", "FakturAraba", "Fakturak igortzen ditut", "Fakturen ordainagiria", and "Arla teknikoak". Below this is a secondary navigation bar with "HASI NAIZ", "LAGUNTZA-MATERIALA", "OHIKO GALDERAK", and "ARAUDIA". The main content area features a heading "Zi naiz fakturak jaulkitzen TicketBAI sistemari jarraituz" and a sub-heading "Ina batzuk proposatzen dizkizugu TicketBAI eskakizunekin jaulkitzen dituzun fakturen kudeaketan, aurki ditzakezun akatsen konponbidean BEZ, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zerga bezalako zergen autoikidazioak egiten laguntzeko." There are two main content blocks: "Bidaltako fakturak kontsultatzea" and "Aitorpenetarako laburpena". The "Bidaltako fakturak kontsultatzea" block has a red circle around the title and a blue arrow pointing to it. The "Aitorpenetarako laburpena" block has a blue arrow pointing to it. On the right side, there is a sidebar with "Utilitateak - Sarbide zuzenak" and a list of utility options: "FakturAraba", "FakturAraba", "Bidaltako fakturak kontsultatzea" (circled in red), "Aitorpenetarako laburpena", "Aitorpenetarako zerrenda", and "Aitorpenetarako laburpena".

BIDALITAKO FAKTURAK KONTSULTATZEKO APLIKAZIOAREN ESKULIBURURA SARTZEKO

araba álava
foru arduradunak diputación foral

Zer da TicketBAI? ▾ FakturAraba Fakturak igortzen ditut ▾ Fakturen ordainagiria ▾ Arlo teknikoa ▾

Laguntza-materiala

ERABILERA-GIDAK

- Fakturen sarbidea eta kontsulta**
- Oharrak/Akatsak kontsultatzea eta zuzentzea: Zuzendu/Modificación (18. orrialdea)
- Osatu informazio gehigarria: Osatu (21. orrialdea)
- Aitorpenetarako fakturen zerrenda (26. orrialdea)
- Aitorpenetarako laburpena (31. orrialdea)
- Erroreak zuzentzeko laguntza dokumentua


ALDAKETAK APLIKAZIOAREN BIDEZ EGITEKO (1)

Zer da TicketBAI? → FakturAraba **Fakturak igortzen ditut** → Fakturen ordainagiria → Arlo teknikoak →

HASI NAIZ → LAGUNTZA-MATERIALA → OHIKO GALDERAK → ARAUDIA

Hasi naiz fakturak jaulkitzen TicketBAI sistemari jarraituz


ina batzuk proposatzen dizkizugu TicketBAI eskakizunekin jaulkitzen dituzun fakturen kudeaketan, aurki ditzakezun akatsen konponbidean BEZ, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zerga bezalako zergen autoikidazioak egiten laguntzeko.



Bidalitako fakturak kontsultatzea

Bidalitako fakturak kontsultatzeko aplikaziobiko eszarta ditzakezu Ogasunean jaso diren fakturak, eta zuzenak diren ala ez (baliozkotzeak gainazalaz jaulkitzen). Zuzendu Aldaketa egiteko aukera izango duzu, baldintza teknikoek eta araudiek ahalbidetzen dutenean.

Bidalitako fakturak kontsultatzea



Aitorpenetarako laburpena

Horretarako, TBAI fitxategietan jasotako informazioa bitzen da, 303/390 ereduaren aurrekalkulua eginez. Horrek aitorpenak egiten eta bidalitako informazioa egiaztatzen lagunduko du. Kontsultak hileroko, hiru hilean behin eta urtean behin egin ahal izango dituzu, eta aurkeztutako autoikidazioak erakutsi ahal izango dituzu, konparazioa eginez.


Hala ere, zergadunaren erantzukizuna da jaulkitako fakturretan jasotutako kuota guztiaz behar bezala aitorzea. TicketBAI fitxategia baztertu den edo akatsak dituen kontuan hartu gabe.

→ Aitorpenetarako laburpena

Utilitateak - Sarbide zuzenak

- FakturAraba
- FakturAraba
- Bidalitako fakturak kontsultatzea**
- Aitorpenetarako laburpena
- Aitorpenetarako zerrenda

ALDAKETAK APLIKAZIOAREN BIDEZ EGITEKO (2)



The screenshot shows the TicketBAI application interface. At the top left is the TicketBAI logo. At the top right is a user profile icon. Below the header is a navigation bar with three items: 'FAKTURAK KONTSULTATZEA' (highlighted in red), 'ERROREAK KONTSULTATZEA', and 'DATU FISKALAK'. Below the navigation bar is the title 'Fakturak kontsultatzea'. There are two input fields: 'Sailaren izena' and 'Faktura zenbakia'. Below these are two date pickers: 'Jaulkitze data: noiztik' with the date '2025/01/06' and 'Jaulkitze data: noiz arte' with the date '2025/09/26'. At the bottom, there is a section for 'Fakturak' with three radio buttons: 'Guztiak' (selected), 'Erroreak dituztenak', and 'Errorerik gabekoak'.

Fakturak kontsultatzea

Sailaren izena

Faktura zenbakia

Jaulkitze data: noiztik
2025/01/06

Jaulkitze data: noiz arte
2025/09/26

Fakturak

Guztiak Erroreak dituztenak Errorerik gabekoak

ALDAKETAK APLIKAZIOAREN BIDEZ EGITEKO (3)

Fakturak





Guztiak
 Erroreak dituztenak
 Errorerik gabekoak



Gaurko egunari buruzko datuak prozesatzeko egon daitezke

Bilatu 

JASOTZE DATA	JAILKITZE DATA	SAILA/ZENBAKIA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA, GUZTIRA	EGOERA	
✓ 2025/10/17 13:25:44	2025/10/17 13:25:43	RCA / 5	Factura TBAI	163,68	Jasota	⋮
✗ 2025/10/17 13:23:07	2025/10/17 13:23:06	RCA / 4	Factura TBAI	126,2	Jasota	⋮
✓ 2025/10/14 14:21:03	2025/10/14 14:19:49	DFA_2025S / 16	SUSTITUCION			⋮
✓ 2025/10/13 17:44:57	2025/10/13 17:44:31	DFA_ / 93	03 gakoaren proba. REBU			⋮
✓ 2025/10/13 17:43:19	2025/10/13 17:42:55	DFA_ / 92	03 gakoaren proba. REBU			⋮
✓ 2025/10/13 17:29:24	2025/10/13 17:29:02	DFA_2025S / 15	ventas			⋮
⚠ 2025/10/07 10:11:52	2025/10/07 10:11:33	DFA_2022 / 5	444			⋮

-  Fakturaren xehetasunak
-  Erroreen xehetasunak
-  **Aldatu**
-  Baliogabetu

Hau da INOLA ERE aldatu ezin daitekeena:

- Fakturaren guztirako zenbatekoa.
- Banakapenak sortu edo kendu.
- Lerroak gehitu edo kendu.
- Hartzaileak gehitu edo kendu.

Oharra: Zergadunaren erantzukizuna da jaulkitako fakturetan jasanarazitako kuota guztiak behar bezala aitortzea, nahiz eta XML formatuan fitxategia ezetsi edo fitxategiak zuzentzeko erroreak izan.

Hauek dira ALDA DAITEZKEEN datuak

-Hartzailea(k):

- * Identifikazio mota (IFZ, IFZ-BEZ, AIZ)
- * Herrialdearen kodea
Hartzailearen posta kodea
- * “Zenbait hartzaile” marka (Bai/Ez)
- * “Hirugarrenak edo hartzaileak egindako faktura” marka (T/D/N)

- Fakturaren goiburua:

- * “Faktura erraztua” markaren deskribapena (Bai/Ez)
- * “Faktura erraztu baten ordeztu egindako faktura” marka (Bai/Ez)
- * Faktura zuzentzailea/“Faktura zuzentzailearen kodea” (R1, R2,...)
- * Faktura zuzentzailea/ “Faktura zuzentzaile mota” (S/I)
- * Ordezkatze bidezko faktura zuzentzailea bada: zuzendutako oinarria, zuzendutako kuota, errekaruaren kuota zuzendua)
- * Zuzendutako edo ordezkaturako fakturen zerrenda (gehitu/ezabatu/aldatu)

- Fakturaren datu ekonomikoetan eraginik ez duten datuak:

- * BEZaren araubidearen gakoak
- * Fakturaren xehetasunak: zenbatekoak aldatu daitezke; deskribapena, ez (ezin da xehetasunik gehitu, ezta kendu ere)
- * Banakapen mota (fakturaren araberakoa/eragiketaren araberakoa)
- * Banakapena eragiketaren araberakoa bada, aldaketa hau da egin daiteke: “Ondasun ematea” kendu eta “zerbitzu ematea” jarri edo alderantziz
- * Salbuetsiak: “Salbuespenaren arrazoia” (E1,E2,...)
- * Salbuetsi gabea: “Salbuetsi gabe mota” (S1/S2) eta “Baliokidetasun errekaruaren araubideko edo araubide erraztuko eragiketa” (Bai/Ez)
- * Ez-zergapekoa: “Zergapean ez egotearen arrazoia” (OT/RL)
- * Kostuaren zerga oinarria

INFORMAZIO ERABILGARRIA

Egoitza dagoen herrialdeko identifikazio motak

Balioak	Azalpena
02	IFZ-BEZA
03	Pasaportea
04	Egoitza duen herrialdeak edo lurraldeak emandako identifikazio agiri ofiziala
05	Bizileku ziurtagiria.
06	Beste frogagiri bat

BEZ-aren araubidearen gakoak

Balioak	Deskribapena
01	Araubide orokorreko eragiketak eta ondorengo gakoetan jasotzen ez diren gainerako kasu guztiak
02	Esportazioa
03	Ondasun erabilien, arte objektuen, antigoaleko gauzen eta bildumako objektuen gaineko araubide berezia aplikatzen zaien eragiketak
04	Inbertsio errearen araubide berezia
05	Bidaia agentzien araubide berezia
06	BEZaren erakunde taldeen araubide berezia (maila aurreratua)
07	Kutxa irizpidearen araubide berezia
08	ekoizpenaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zergari / Kanarietako zeharkako zerga orokorrari lotutako eragiketak
09	Besteren izenean eta kontura ari diren bidaia agentziek egindako zerbitzuen fakturazioa (Fakturazioaren Araudia, 3. xedapen gehigarria)
10	Hirugarrenen kontura (bazkideen, kideen edo elkargokideen kontura, alegia) lanbide ordainsariak, jabetza industrialaren edo egile jabetzaren ondoriozko eskubideak edo bestelako kobrantza, baldin eta kobratzaileak kobrantza eginkizunak egiten dituzten sozietate, elkarte, lanbide elkargo edo bestelako erakundeak badira
11	Negozio lokala errentatzeko eragiketak, zergapekoak
12	Negozio lokala errentatzeko eragiketak, ez-zergapekoak
13	Negozio lokala errentatzeko eragiketak, zergapekoak eta ez-zergapekoak
14	BEZa sortu gabe duten fakturak, hartzailea administrazio publikoa den obra egiaztapenetan
15	BEZa sortu gabe duen faktura, segidako traktuko eragiketetan
17	IX. tituluaren XI. kapituluan jasotako araubideren bati atxikitako eragiketa (OSS eta IOSS)
19	Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren Araubide Bereziko eragiketak
51	Baliokidetasun errekaruaren araubideko eragiketak
52	Araubide erraztuko eragiketak
53	BEZaren ondorioetarako ez enpresari ez profesional ez diren pertsonen edo erakundeek egindako eragiketak
54	Kanarietako, Ceutako eta Melillako establezimendu iraunkorretatik egindako eragiketak



INFORMAZIO ERABILGARRIA

Zergapean ez egoteran arrazoia

Ez-zergapekoa, BEZaren Foru Arauaren 7. artikulugatik. Zergapean ez dauden beste kasu batzuk

Ez-zergapekoa, hirugarrenen kontura egindako salmentak

Ez-zergapekoa, lokalizazio arauengatik

Ez-zergapekoa ZALen, lokalizazio arauak direla eta, baina IPS/IGIC edo EBko beste estatu kide bateko BEZa eragiten du

Salbuetsita egotearen arrazoia

BEZaren Foru Arauaren 20. artikulua salbuetsia: salbuetsitako barne-eragiketak badira. ¹

BEZaren Arauaren 21. artikulua salbuetsia: salbuetsitako ondasunen esportazioak badira. ¹

BEZaren Foru Arauaren 22. artikulua salbuetsia: salbuetsitako esportazioei berdinsten zaizkien eragiketak. ¹

BEZaren Foru Arauaren 23. eta 24. artikuluek salbuetsia: zona franko, gordailu franko eta aduana araubideengatik salbuetsitako eragiketak. ¹

BEZaren Foru Arauaren 25. artikulua salbuetsia: Europar Batasunaren barruko ondasun emateengatik salbuetsitako eragiketak. Bezeroa IFZ-BEZarekin identifikatu behar da, eta hura zein hornitzailea alta emanda egon behar dira Batasunaren barruko operadore modura. ¹

Beste arrazoi bat dela eta salbuetsita (araubide bereziak, inportazioak...). ¹



Oharra: Argitalpen hau informazioa emateko baino ez da, zerga betebeharrak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 81. artikuluan ezarritakoaren arabera betetzen laguntzeko.

Informazio hau gorabehera, fakturak egitean, TicketBAI fitxategiak sortu, sinatu eta bidaltzean, eta zerga aitortpenak aurkeztean, unean-unean indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko da.